



BIZITZA ETA ISTRIPU ASEGURUEN POLIZETARAKO DATUAK
GARRANTZITSUA: inprimaki hau bete aurretik, irakurri atzeko aldeko oharrak

LANTOKIA

LANGILEAREN DATUAK

DEITURAK ETA IZENA			TELEFONOA	
HELBIDEA		POSTA KODEA	HERRIA	
IFZ	EGOERA ZIBILA		JAIOTEGUNA	

ONURADUN IZENDATZEN DEN EZKONTIDEAREN EDO LEGEZ ONARTURIKO IZATEZKO BIKOTEKIDEAREN DATUAK

DEITURAK ETA IZENA				
SEXUA G/E	IFZ	JAIOTEGUNA	TELEFONOA	KALTE-ORDAINAREN EHUNEKOA

ONURADUN IZENDATZEN DIREN SEME-ALABEN DATUAK

DEITURAK ETA IZENA	SEXUA G/E	IFZ	JAIOTEGUNA	KALTE-ORDAINAREN EHUNEKOA

BESTE ONURADUN BATZUK: (Hau beteko da baldin eta langileak aukeratzen badu aseguruaren onuradun izendatzea aurreko ataletan –ezkontidearena, izatezko bikotekidearena edo seme-alabena– sartu gabeko pertsona bat edo batzuk).

DEITURAK ETA IZENA	SEXUA G/E	IFZ	JAIOTEGUNA	TELEFONOA	KALTE-ORDAINAREN EHUNEKOA

DATA	SINADURA
------	----------

Inprimaki hau bertaratuz edo posta arruntez aurkeztu beharko da Gizarte Prestazioen Zerbitzuan (Navarrerria , 39, behea, 31001 Iruña), Administrazio Erroari eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen kasuan, ala Hezkuntza Departamentuko Nomina eta Gizarte Aseguruaren Atalean (Santo Domingo z.g., 31001 Iruña), departamentu horri atxikitako langileen kasuan.

OHARRAK:

- Dokumentu honek onuradunak izendatzen ditu berariaz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere langileen alde kontratatutako bizi eta istripu aseguruetarako.
- Berariazko izendapen honek balioa eta ondorioak izan ditzan, nahitaezkoa da, asegurdunaren eta onuradunen datuez gain, data eta asegurdunaren sinadura ere agertzea.
- Onuradunen berariazko izendapen honek deuseztatu egiten du aurretik asegurdunak egindako beste edozein izendapen.
- Nahi ez bada ezkontidea, legez onarturiko izatezko bikotekidea edo seme-alabak onuradun gisa agertzea, dokumentu honetan ez dira haien daturik jarri behar. Onuradun izendatutako ezkontideak edo izatezko bikotekideak onuradun izaerari eutsiko dio nahiz eta bereizi, dibortziatu edo asegurdunarekin duen harremana hautsi, salbu asegurdunak beste onuradun batzuk izendatzen baditu berariaz, aurreko izendapena aldatuz.
- Arau orokor gisa, asegurdunak onuradun bat baino gehiago izendatzen badu, aseguraturako kapitala onuradun guztien artean banatuko da, zati berdinetan. Hala ere, onuradun bakoitzarendako banaketa desberdinak ezar daitezke. Horretarako, asegurdunak "Kalte-ordainaren ehuneko" izeneko laukitxoan adierazi beharko du onuradun bakoitzerako aseguraturako kapitalaren zer parte-hartze nahi duen (esate baterako: onuradunak hiru izanik, onuradun batek kalteordainaren erdia eta gainerako biek beste erdia jasotzea nahi bada. Hala, lehenean %50 eta bigarrenean eta hirugarrenean %25 jarriko da). Onuradun guztien artean kapitala zati berdinetan banatu nahi bada, ez da behar arestian aipatutako laukia betetzea.
- Asegurduna **hiltzen** bada, berak egindako onuradunen izendapen berariazkoan ezarritakoa beteko da. Ez badira onuradunak berariaz izendatzen, hauek izendatuko dira, lehentasun baztertzaila hauei jarraikiz:
 1. Testamentu bidezko oinordekoak.
 2. Ezkontidea, ez badago asegurdunarengandik legez bereizia, edo izatezko bikotekidea, bikotea behar bezala eratu bada, asegurdunari aplikatzekoa zaion araudiarekin bat, eta frogatzen bada asegurdunarekin duen harremanak irauten duela hura hil den unean.
 3. Hura gabe, seme-alabei, berdin guztiei.
 4. Horiek gabe, gurasoei, biei berdin.
 5. Horiek guztiak gabe, haien legezko oinordekoei, denei berdin.
- Asegurdunak nahi adina aldiz aldatzen ahalko ditu izendatutako onuradunak. Horretarako, beste inprimaki bat bete beharko du, eta horrela aurreko izendapenak automatikoki baliogabetuko dira. Inprimaki hori Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Gizarte Prestazioen Zerbitzuan eska daiteke (Navarrería 39, 31001 Iruña), edo Nafarroako Gobernuaren intranet orritik deskargatu, Administrazio Erroari eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen kasuan, ala Hezkuntza Departamentuko Nomina eta Aseguru Sozialen Atalean (Santo Domingo kalea, 8 - 31001 Iruña) edo "www.pnte.cfnavarra.es" web orritik deskargatu, hezkuntza esparruari atxikitako asegurdunen kasuan. Inprimakia beterik, bertaratuz edo posta arruntez aurkeztuko da, gorago aipatutako helbideetan, asegurdunaren atxikipenaren arabera.
- Aseguru horiei buruz informazio gehiago behar izanez gero, jo Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko Gizarte Prestazioen Zerbitzura, lehen aipatutako helbidera, deitu zerbitzu horretako 848 427091 edo 848 427092 telefonoetara, edo egin ezazu kontsulta Nafarroako Gobernuaren intranet orrian.
- Datuen babesa:

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren ondorioetarako, jakinarazten da agiri honetan jasotako datuak datuen fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Nafarroako Gobernuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio horiek zuzen erabiltzea, eta hark bermatzen du datuen konfidentziasuna. Asegurdunari zerbitzu hau emateak (non Nafarroako Gobernuaren aseguruaren izenpetzailea baita) berarekin dakar dokumentu honetan jasotako datuak jakinaraztea une horretan dagokion aseguru kontratua esleitua duten aseguru bitartekariei eta aseguru entitateei. Horregatik, onuradunak, dokumentu hau sinatuz, onartzen du bere datuak entitate horiei jakinaraztea, bakar-bakarrik une horretan dagoen aseguru-harremana kudeatzeko, eta, behar denean, asegurdunei gertatutako ezbeharrak tramitatzeko. Datuen titularrari jakinarazten zaio datu pertsonalak ikusi, zuzendu, ezabatu eta haien aurka jotzeko eskubidea erabiltzen ahal duela fitxategiaren arduradunaren aurrean, datuak babesteko indarra duen araudiarekin bat.